

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera eramateko, garrantzitsuena bezeroen beharrak asetzea da eta hori posible izateko, aplikazioa sortzerakoan taldekide bakoitzak zeregin bat edukiko du. Horretarako, hainbat baliabide fisiko nahiz intelektualekin kontaktzen dugu eta ekintzaitako batek arazoren bat izanez gero, taldekideei laguntza eskatu diezaioke.

Hasieran, bezeroak bilatzea funtsezkoa izango da, hau da, gure aplikazioaren propaganda egitea. Horretaz taldekide guztiak arduratuko gara, elkarlanean arituko gara, jende gehiagorengana iritsi ahal izateko. Gure ideietako bat Euskal Herriko hainbat unibertsitate nahiz eskoletara joatea izango da, bertako gazteak direlako gure bezero potentzialak eta haiei proiektuaren berri eman nahi diegu, eta parte hartzera animatu. Dagoeneko hainbat unibertsitate zein eskolak baiezkoa eman digute gure aurkezpenak bertan egiteko; hala nola, EHUKo, Deustoko eta Mondragonneko unibertsitateak. Bestalde, Urretxu-Zumarragako, Haztegiko, Elgoibarko, Beasaingoko, Bergarako, Hernanitetako eskolek ere eman digute aukera gure aurkezpenak haien ikasleekin partekatzeke. Hori ondo ateraz gero, aplikazioari hasiera emateko hainbat pertsona edukiko ditugu.

Baina enpresa martxa hartzen doan heinean bezero gehiago edukiko ditugula aurreratzen dugunez, haiekin harremanetan egongo dena lene izango da. Bezero guztien beharrak asetu eta gure bezeroak eroso senti daitezten saiatuko garenez, aplikazioa hainbat hizkuntzatan erabiltzeko aukera eskainiko dugu; euskaraz, gure enpresa Euskal Herriko biztanleriari bideratuta baitago; hau da, gure bezero potentzialak euskaldunak direnez, lehenengo hitza beti euskaraz izango da. Horretaz gain aplikazioaren hizkuntza nagusia ere euskara izango litzateke, gure helburuenetako bat euskararen erabilera bultzatzea baita. Era berean, denentzako ulergarria izan dadiz, hainbat hizkuntza gehiagotan jartzea pentsatu dugu. Hots, ekintzaile hau hizkuntzetan abila denez, ingelesa, euskara, gaztelania, katalana eta frantsesa dakizkienez, hura izango da gmailaz, telefonoaz eta aurrez-aurreko elkarrizketez arduratuko dena, 24 orduz bezeroak asetzeko eta haien zalantzak argitzeko prest eongo da. Ildo beretik jarraituz, gure aplikazioan esparru bat dedikatu diogu bezeroen ohiko galderei erantzuteko, lunek idatzi eta Endikak aplikazioan txertatuko dituenak (ondoren azalduko dugu azken mutil honek egingo duena). Hori guztia, gure enpresari edo eskaintzen dugun zerbitzuari buruzko zalantzarik izan ez dezaten. Hori gutxi balitz, egun puntualetan mezu pertsonalizatuak, gutunak... ere bidaliko ditu lunek, haiengan harremana eta konfiantza sustatzeko, baita gure enpresaz gogoratzeko eta haiei jakinarazteko gure proiektuaren parte garrantzitsuena direla eta beti beraiengan pentsatzen gaudela ere.



Horrez gain, aplikazioa erraza, eroso, segurua eta zuzena izatea ere gure helburuetako bat da. Endikak informatika mundua gustoko duenez, berak sortuko du aplikazioa eta edozein arazo egongo balitz ere berak konponduko luke. Gainera, bera arduratuko da nobedade nahiz berri guztiak eguneratzeaz. Hala ere, Ane izango du laguntzaile, izan ere, sorkuntzaren atala oso garatua du eta berak lagunduko dio aplikazioa diseinatzen, itxura zoragarria eta erraza eduki dezan. Gainera, sare sozialetan publizitatea egitea ere nahi dugu, badakigulako gaur egun gazteek asko erabiltzen dituztela, eta Twin Melody, Dani Garcia bezelako famatuekin harremanetan jarriko gara ere, azken bi jarduera hauek Anek egingo ditu.

Hau dena aurrera ateratzeko, dirua kontrolatzea ere beharrezkoa da. Horretarako Maria dugu, oso ona da matematika munduan, beraz, zaletasun hortaz baliatuz, bere lana izango da enpresaren kontuetaz baliatzea eta ziurtatzea bide onetik goazela. Gainera, aurreko ataletan aipatu dugun bezala, irabazietako zati bat enpresa autonomoen iragarkietatik aterako dugu, Maria arduratuko da enpresa autonomoekin kontaktuan jartzeaz eta aplikazioa azaltzeaz. Horrez gain, gure helburu nagusia beharrak asetzea denez eta ez dirua irabazteaz, COVIDaren arazoa hobetzeko dirua emango dugu, eta hau gutxitzen denean beste hainbat elkarreei ere lagunduko diegu, GKE-ei eta ospitaleei hain zuzen. Laguntza horietaz eta haiekin harremanetan jartzeaz Endika arduratuko da, lortzen dugun diruaren araberakoak izango baitira eta berak aplikazioa sortu eta gero denbora librea edukiko duelako.

Hori gutxi balitz, gure proiektuaren parte ere bada banaketa lana. Hots, erositako ondasun horiek besteen etxeetara iristea, segustasun eta erosotasun guztiz ibiltzeko. Horretarako, Brandyk bere amari eskatuko dio furgoneta, beraz garraio lana noizbait egin beharko balitz berak egingo luke, dirua aurreztu ahal izateko.

Baina, dena posibe izan dadin, badakigu dirua beharko dugula. Hala ere, ez da asko izango, beharrezkoak diren ordenagailuak, kalkulagailuak... gure etxetik eramango ditugulako eta beraz ez dugu mailegurik eskatuko, gure poltsikotik jarriko dugu dirua UGGASako lokala alokatzeko eta beste edozer gauza beharko balitz ere. Gainera, eskubide eta legeekin kontu handia edukiko dugu, beraz, gure senide bat abokatua dela kontuan izanik, kontaktuan jarri eta berak azalduko digu araudia. Horrek ere diru dezente aurreztuko liguke.

Azkenik, gure beste jardueratako bat bezeroei inkestak pasatzea izango da, haien iritzia jakiteko eta edozein aldaketa egin beharko balitz egiteko. Erreklamazio orria ere haien eskura edukiko dute, izan ere eskaintzen dugun zerbitzua bezeroak ahalik eta eroso sentitzeko xehetasunez planifikatuta dago. Hori ere bezeroekiko harremana denez eta korreoz bidaliko zaienez, lunek egingo du.

Laburbilduz, eta hau dena ondo atera dadin, elkarren artean beti lagunduko gara, eta beti izango dugu batak bestearen sostengua! Gure taldeko norbait lehertzen bada, eta gure proiektuarekin aurrera jarraitu nahi ez badu, beste guztiak laguntzeko eta animatzeko prest egongo gara.

GUZTIOK BAT GARELAKO, TALDE BAT GARA!

